



# SAN MARTIN PARKEA



## PARKEAREN HISTORIA



*San Martin* parkea 200 urteko haritz ederrez apaindutako parke polit bat da. XVI . mendearen amaieran sortu zela uste da. Parkearen mutur

batean San Martin ermita dugu eta beste aldean Kalbarioa. Ermitaren aurrealdean ate gotikoa aurkitzen dugu, horman ur bedeinkatuarentzako harrizko ontzia eta ate gaineko kanpai bakarra duen espadaña (XVIII. mendekoa). Barruan dagoen elementurik aipagarriena teilatuari eusten dion erdiko zurezko zutabea da (Gipuzkoan bakarra).

Aberastasun

haundikoak dira ere barruan dauden hiru erretaulak. Bereziki Tourseko San Martineri dedikatutakoa.



## PARKEA ETA OÑATIARRAK

Ermitan Oñatiko errementarien San Martin eta San Rokeren kofradiak kokatu ziren, Santuak gurtzeko. Bestalde, aspalditik prozesioak egin izan ohi dira ermitara. Gaur egun, Santuen egunean bakarrik ospatzen da meza bertan. Jai girorako ere toki paregabea izan da. Musika bandak zein txistulariek jo ohi zituzten dantzatzeko piezak. Igandero Kalbarioko hiru gurutzetan toka jolasak ere egiten ziren eta bolatokian bolo jokoak. Ziklo-krosa eta krosa ere ospatzen ziren parkean.

## PARKEAREN BIODIBERTSITATEA



Landare-diari dagokionez, *haritzak* dira parkean dauden zuhaitz gehienak, nahiz eta lizar, pago eta indigaztainondo gutxi batzuk ere egon.

Haritz gehienak zaharrak dira eta beste asko hilda daude. Hau interesgarria da hainbat animalia-erentzat, ornogabe eta *akil*entzako, adibidez. Parkean gizakiak egindako *enbar pilaketa* bat ere badago, informazio panelak dioen bezala, oso egokia intsektuak eta animalia deskonposatzaileak bertan bizitzeko. Lurzoruari dagokionez, lohitsuak, kolore ilunekoa eta materia organiko ugari bizi dira bertan: kukurutzak, zizareak, ehunzangoak, barraskiloak, inurriak...



Hala eta guztiz ere, hain eremu zabala izanik, bertako landare zein animalia espezie *aniztasuna* urria da. Bestalde, lotura zuzena egon daiteke landaredia urria eta animalia espezie murrizaren artean. Dauden zuhaitzak eta landareak urriak izanik, parkean bizi diren animalia espezieen barietatea ere oso murrizta da.

## HOBETZE PROPOSAMENAK

Proposamenen helburua parkeko biodibertsitatea emendatzea eta parkea *herritarrentzat* atseginagoa izatea da. Horretarako, bertako *biodibertsitatea errespetatu* beharko dugu, parkean isiltasuna eta lasaitasuna izan behar direlarik nagusi.

Parkea birgaitzeko planean landuko genituzkeen alderdiak:

- Zuhaitz eta zuhaixka ezberdinak landatu, Oñatiko espezieak zeintzuk diren kontuan hartuta.
- Zuhaitz eta zuhaixka espezie ezberdinak izendatu (euskaraz, gaztelaraz eta izen zientifikoaz).
- Belardi zabala sortu.
- Lorategi bat egin.
- Haritz zaharrak eta hilak mantendu.
- Egur pilaketak mantendu.



- Informazio panelak konpondu eta argiztatu.
- Txoriendako, saguzarrendako, trikuendako edota intsektuendako etxeak kokatu.
- Energia berriztagarrietan oinarritutako kale-argiak kokatu.

- Zakarrontzien diseinua eta kokapena zehaztu.
- Eserlekuen hobetze planteamendua burutu.
- Txakurrek kakak jasotzeko eskatzen duten seinaleak jarri.

- Picnic gunea eta irakurketa eremua sortu.
- Bolatokia birgaitu.

